

**Prozedura hau arautzen du urtarrilaren 21eko Hezkuntzako zuzendari nagusiak emandako 4/2019 Ebazpenak.**

**ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA martxoaren 1etik 15era biak barne.**

Udal Haur Eskola da eskaerak eta dokumentuak hartzeko eta uzteko lekua (Mendikale 16, behea).

Ordutegia: **08:30etatik 10:00etara eta 12'30etatik 15'00etara.**

**AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

a) NAren kopia edo pasaportearena, atzeritarrentzako bizitoki-txartelaren kopia edo balio bera duen gurasoen edo legezko tutoreen nortasun-agiriarena.

b) Gurasoen edo legezko tutoreen lan-egoera eta/edo egoera akademikoa justifikatzen duten agiriak.

- Lan-bizitzaren ziurtagiria, izen-emate epea bukatu (martxoaren 15a) aurreko 30 egunetan gizarte segurantzana alta emanda zegoela egiaztatzen duena. Eskuratzeko bideak:

- 1) 901 50 20 50 telefonoa.

- 2) [www.seg-social.es](http://www.seg-social.es) helbidea.

- 3) Ez da beharrezkoa aurkeztea, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorretik lortzeko baimena ematen bazaio Udalari.

- Norberaren kontura lan egiten duten profesionalen egoerak justifikatzeko aurkeztu behar dena: izen-emate epea bukatu (martxoaren 15a) aurreko 30 egunetan mutualitate orokorraren, dagokion Gizarte Segurantzako araubidearen eta jarduera ekomomikoen zergaren alta egiaztatzen duten dokumentuak.

- Eskaerak aurkezteko unean ikasten arituz gero, matrikularen, ikasturteko egutegiaren eta ordutegiaren frogagiria aurkeztuko dira.

- Eszedentzian egonez gero 3 urtez beherako semea edo alaba zaintzeagatik, eszedentziaren jakinarazpena aurkeztuko da eta lanera itzultzeko aurreikusitako data idatziz. 2019ko urriaren 1az gaindikoa ez da izan itzultzeko data, jarduneko langilezat har dadin. Haurra ikastetxean hasi ondoren hasiko bada lanean, ikaspostua eman ondoko hilabete eta erdian izan beharko du beranduenez; kasu horietan lanera itzuli ondoren, enpresa ziurtagiria aurkeztu beharko da, lanera itzuli deneko eguna egiaztatzeko.

- Lanik gabe egonez gero, enplegu eskatzaile bezala alta emanda egotea egiaztatzen duen agiria.

c) Familiaren osaera egiaztatzeko agiriak:

- Familia-liburuaren fotokopia (aita, ama eta seme-alabak) edo, halakorik izan ezean, antzeko agiri ofiziala osorik.

- Eskaera oraindik jaio ez den haur bati badagokio, aurreikusitako jaiotze data egiaztatzen duen mediku-txostena ere aurkeztuko da (gehieneko epea 2019ko apirilaren 30a). Adopzio edo harrera prozesuan dauden haurren kasuan, dagokion egiaztalaria aurkeztuko da.

- Haurra harrera-egoeran dagoela edo adoptatua dela frogatzen duen agiria. Data egiaztatzeak baldintzatuko du onarpena.

- Dibortzio edo banaketa kasuan, egoera hori legalki egiaztatzen duen epaia edo agiria aurkeztu beharko da.

- Guraso bakarreko familia izatea egiaztatzen duen agiria.

- Familia ugariaren titulua.

- Familia unitateko edozein kideren urritasuna frogatzen duen agiria edo familia unitateko kideren bat Gizarte Segurantzako pentsioduna dela frogatzen duen agiria, ezintasun iraunkor osoko, absolutuko edo baliaezintasun handiko pentsioa aitorturik badu.

d) Errenta mailak frogatzeko agiriak.

- Gurasoen edo legezko tutoreen 2017ko errenta aitortpenaren fotokopia. Aitortpena egin beharrik ez badute, 2017ko errentei eta diru-sarrei buruzko zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, eta/edo familiak 2017an izan dituen diru-sarrerak zehazteko beharrezkoak jotzen diren agiriak.

e) Aitaren, amaren edo legezko tutoreen bizitokia edo lantokia eragin-eremu geografikoan dagoela frogatzen duen dokumentua.

- Erroldatze agiria, haurra eta aita, ama edo legezko tutoreak udalerrian 2019ko urtarrilaren 1a baino lehenago erroldaturik daudela egiaztatzen duena. Dokumentu hau **EZ** da derrigorrezkoa. Udal erroldan kontsultatuko da.

- Eskatzaileak Antsoingo Udal Haur Eskolan lan egiten duela adierazten duen agiria.

- Lantokia Antsoinen izatea frogatzen duen agiria, Antsoainen erroldatuta ez daudenentzat.

- Etxebizitza aldatu behar dutenen kasuan, etxebizitza berria ikasturtea hasi aurreko data batean emanen dietela adierazten duen egiaztalaria balioetsiko da. Kasu horretan, egungo bizitokia zein den adieraziko da jakinarazpenetarako, eta bizitoki berria, berriz, baremazioa egiteko.

f) Zuzenean sartzeko baldintza berezien agiriak.

- Haurraren urritasuna kalifikatzen duen ziurtagiria eta/edo haurraren mendekotasun handia (III. gradua) aitortzen duen egiaztagiria, eta/edo profesional batek egindako txostena, hezkuntza premia berariazkoak ekar ditzaketen ezaugarriekin.

g) Beste edozein egoera berezi baloratzeko frogagiriak. Medikuaren, psikologoaren, gizarte langilearen edo zerbitzu espezializatu ofizialen txostena aurkeztu beharko da inguruabar hori frogatzeko.

#### **BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK JENDAURREAN JARTZEA: maiatzaren 6an**

Behin-behineko zerrendak Udal Haur Eskolan jarriko dira, 948012012 (012) INFOLOCAL telefonoan eta [www.ansoain.es](http://www.ansoain.es) helbidean.

**ERREKLAMAZIOAK AURKEZTEA: maitzaren 6tik 10era**, Udal Haur Eskolan.

#### **BEHIN BETIKO ZERRENDAK ARGITARATZEA: maitzaren 20ean.**

Udal Haur Eskolan, 948012012 (012) INFOLOCALen et [www.ansoain.es](http://www.ansoain.es) helbidean jarriko dira onartutakoen behin betiko zerrendak eta betetzeko gera daitezkeen postuen itxaron zerrendak.

#### **MATRIKULA EGITEA: maiatzaren 20tik 24ra.**

Onartutakoen zerrendan agertzen direnen familiek Udal Haur Eskolan egingen dute matrikula, 09:00etatik 14:00etara.

- Matrikula egiteak berekin dakar eskolara joateko eta ezarritako tarifak ordaintzeko konpromisoa.
- Matrikula dagokion epearen barruan ez egiteak plazari uko egiten zaiola adieraziko du eta itxaron zerrendako hurrengoari eskainiko zaio leku hori.
- Haur Eskolan lehenengo aldiz sartzeko matrikula ezin dute egin aurretik beste seme edo alabei dagozkien kuotak zor ditzutenek.
- Matrikula egiten denean, eskolan hasteko data zehaztuko da.
- Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:
  - 50 euroko hasierako kuota ordaindu izanaren agiria.  
Ordainketarako kontua: ES84 3035 0162 7916 2090 0004, Euskadiko Kutxa.
  - Haurraren Gizarte Segurantzako txartelaren fotokopia.
  - Aitaren eta amaren edo legezko tutoreen Pertsona Fisikoen 2018ko Errentaren Aitorpenaren fotokopia. Aitorpena egin beharrik ez badute, 2018ko errentei eta diru-sarrei buruzko zinpeko aitorpena aurkeztu beharko dute, eta/edo familiak 2018an izan dituen diru-sarrerak zehazteko beharrezkoak jotzen diren agiriak. Dokumentu hori aurkezteko eguna 2019ko ekainaren 25a arte atzeratu ahalko da.
  - Ordainagiriak helbideratzeko banku entitateko kartilla orriaren fotokopia, titularra eta zenbakia agertzen dituena.
  - Kasua bada, beharrezkoa den osasun informazioa, haurra behar den moduan zaintzeko.

### **KONTUAN HARTZEKOAK**

- Eskaeraren arabera finkatuko da haurren sektorekako banaketa.
- Haur Eskola 07:30etan irekitzen da eta 16:30etan ixten da.
- Ikasturtea 2019ko abuztuaren 20an hasiko da eta 2020ko ekainaren 30ean izanen du bukaera.

### **OHARRAK**

- Alegatzen den egoerari buruzko ziurtagiriak aurkezten ez badira, zero zenbakiarekin puntuatuko da onarpen baremoari dagokion atalean.
- Eskabidean edo erantsitako agiritan adierazitako datuak okerrak edo faltsuak direla egiaztatzen bada, dagokion puntuazioa aldatuko da eta, kasua bada, emandako ikaspostua kenduko da.
- Hautapen Batzordeak zilegi izanen du edozein unetan ziurtagiri gehiago eskatzea hautapen baremoan puntuazioa duten egoerei buruz.
- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraiki, jakinarazten zaizu haur eskolako fitxategi bat badela, izen-emate eta matrikulazioak kudeatzeko xedearekin eta onarpena zein itxaron zerrenda kudeatzeko; eskolatutakoen kudeaketarako; guraso edo tutoreekiko harremanen kudeaketarako; eta fakturazioa kudeatzeko.
- Baimena berariaz eta idatzita ematen du datuak zerbitzuaren garapenerako erabili ahal izateko. Halaber, jakinarazten zaizu jasotako datuak hirugarrenei lagatzen ahal zaizkiela legeak zehazki horrela aurreikusita daukanean edo lagapena beste administrazio publikoei, dagozkien eskumenetarako, egiten zaienean. Fitxategiaren ardura Udalarena da, eta eskubidea duzu datu horiek udal bulegoetan eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta datu horiei kontra egiteko.

### **TARIFAK**

Hezkuntzako kontseilariak emandako urtarilaren 24ko 2/2019 Foru Aginduan xedatutakoari jarraiki aplikatuko dira tarifak.